35/1997 Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera. Dekretu horrek informazio sistema eta telekomunikazioen inguruko zereginen banaketa eta kudeaketa modalitateak, antolakuntza, eta plangintza arautzen ditu.

*2. artikulua-* Kontratu-prgrama horren inguruko bestelako eskumenak, bereziki kontratua sinatzeko erabakia hartzea eta luzatzea, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren esku geldituko dira; eta berak, edozein momentutan errebokatu ahalko du eskuordetze hau edo haren barruko edozein gai ezagutzeko informazioa eskatu eta erabakia hartu.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek indarra izango du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko ekainaren 11.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

del Decreto 35/1997, de 18 de febrero, por el que se regula la planificación, organización, distribución de funciones y modalidades de gestión en materia de sistemas de información y telecomunicaciones.

*Articulo 2.–* El resto de las competencias relativas al citado contrato-programa, especialmente acordar su suscripción y su prorroga, se ejercerán por la Consejera de Hacienda y Administración Publica, la cual podrá, en cualquier momento, revocar la presente delegación o reclamar el conocimiento y resolución de cualquier asunto incluido en el ámbito de la misma.

DISPOSICION FINAL

La presente Orden entrara en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de junio de 2003.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-4236

AGINDUA, 2003ko uztailaren 1ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena; honen bidez, unibertsitateko edo goragoko mailako irakaskuntzarako euskarazko liburuak argitaratzeko laguntzetarako arauak eta 2003. urtean eskaerak aurkezteko deialdia onartzen dira.

Azaroaren 24ko 10/1982 Legeak -Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Oinarrizkoak- hezkuntza-maila guztietako ikasleei irakaskuntza euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko eskubidea aitortzeaz gain, ezarri ere egiten du neurri egokiak hartu beharko direla Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sisteman elebitasuna gero eta gehiago hedatzeko.

Unibertsitateko irakaskuntzan helburu hori lortzeko eta abenduaren 21eko Unibertsitateetako 6/2001 Lege Organikoan adierazten den Europako goi-mailako irakaskuntzako espazio bateratuan sartu ahal izateko, etengabeko sustapena behar da, bai irakasleak euskalduntzeari dagokionez, eta bai liburuak euskaraz argitara daitezen sustatzeko ere, ikasleak unibertsitateko edo goragoko mailako irakaskuntzako titulu ofizialak eskuratu ahal izateko ikasketa-planak osatzen dituzten

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-4236

ORDEN de 1 de julio de 2003, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se aprueban las normas reguladoras de las ayudas para la edición de libros en euskera destinados a la enseñanza universitaria y/o superior y la convocatoria para presentación de solicitudes en el ejercicio 2003.

La Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera, además de reconocer a los alumnos de todos los niveles educativos el derecho a recibir la enseñanza tanto en euskera como en castellano, establece que deberán adoptarse las medidas oportunas tendentes a la generalización progresiva del bilingüismo en el sistema educativo de la Comunidad Autónoma.

Para alcanzar este objetivo en la enseñanza universitaria y con miras a su integración en el espacio europeo común de enseñanza superior a que se refiere la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades, se requiere de un impulso continuado, tanto en lo que se refiere a la euskaldunización del profesorado, como en fomentar la edición en euskera de los libros que los alumnos precisan para su formación en las materias que conforman los planes de estudio conducentes a la

irakasgaietan prestatzeko behar dituzten liburuak, hain zuzen.

Agindu honetan arautzen diren laguntzen helburua da aipatutako hezkuntza-mailarako euskarazko liburuak argitaratzeko kostu mekanikoak ordaintzen laguntzea, eta, hala balegokio, liburu horien CD-ROM osagarrien kostuak ere bai.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazio guztien betebeharra da euskararen batasuna eta normalkuntza zaintzea, lurralde-eremu honetako idatzizko hizkuntza ofiziala denez gero; beraz, diruz lagundutako liburu guztiek agindu honen 3.4. artikuluan aipatzen den hizkuntza-egokitasunaren ziurtagiria lortu beharko dute.

Beraz, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartu zen) VI. tituluan ezarritako xedapenei (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioaren arloko diru-laguntzak arautzen dira titulu horretan), abenduaren 27ko 8/2002 Legean ezarritako xedapenei (lege horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2003 ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartu ziren) eta orokorrean aplikaziokoak diren gainerako xedapenei jarraiki, honako hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua-* Deialdiaren xedea.

1.– Deialdi honen helburua hauxe da: euskarazko liburuak argitaratzeko diru-laguntzak ematea, hain zuzen ere, unibertsitateko edo goragoko mailako irakaskuntzako liburuak argitaratzeko, horri buruz abenduaren 21eko Unibertsitateetako 6/2001 Lege Organikoaren XIII. tituluan jasotzen denaren arabera.

2.– Deialdi honetako diru-laguntzak lehiaketaren bidez esleituko dira banaketako portzentaje bakarrarekin. Horretarako 164.170 euro jarri dira partida honetan: Euskal Autonomia Erkidegoko 2003. urterako Aurrekontu Orokorraren (abenduaren 27ko 8/2002 Legeak onartu zituen) gastuen egoerako 03.0.1.04.08.0800.4.454.99.42230.002.P partida.

3.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindu hau Euskal Herriko Agintzaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

4.– Prozedura horren bitartez hautatzen diren liburuen argitalpenaren kostu mekanikoak ordaintzen laguntzeko erabiliko dira diru-laguntzak, bai eta, hala balegokio, liburu horien CD-ROM osagarrien kostuak ordaintzen laguntzeko ere. Kostu mekanikotzat joko da argitalpenak eragin duen orotarako kostua, gastu hauek izan ezik: egile-eskubideenak, gai-eraketarenak, idazketarenak, itzulpenarenak eta edukia egokitu eta zuzentzearenak.

obtención de títulos oficiales de enseñanza universitaria y/o superior.

Las ayudas reguladas por la presente Orden están dirigidas a subvencionar los costos mecánicos de la edición de los libros en euskera destinados al referido nivel educativo y, en su caso, los costos correspondientes a los CD-ROM complementarios de aquellos.

Por otra parte, en el deber que incumbe a todas las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de velar por la unificación y normalización del euskera en su condición de lengua escrita oficial común en este ámbito territorial, todos los libros subvencionados deberán obtener el certificado de idoneidad lingüística a que se refiere el articulo 3.4 de la presente Orden.

Por ello, de conformidad con lo establecido en las disposiciones contenidas en el Título VI del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, referente a la regulación de las subvenciones en el ámbito de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, Ley 8/2002, de 27 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2003,y demás disposiciones de general aplicación,

DISPONGO:

***Artículo 1.–*** Objeto de la convocatoria.

1.– Es objeto de esta convocatoria la concesión de ayudas para la edición de libros en euskera, destinados a la enseñanza universitaria y/o superior en la delimitación que se efectúa de ésta en el Título XIII de la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades.

2.– La presente convocatoria se resolverá por el procedimiento de concurso con porcentaje único de reparto; a este fin se destinará el importe de 164.170 euros consignado en la aplicación presupuestaria 03.0.1.04.08.0800.4.454.99.42230.002.P del estado de gastos de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2003, aprobados por Ley 8/2002, de 27 de diciembre.

3.– El plazo máximo de duración de este procedimiento será de seis meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

4.– Las ayudas se destinarán a subvencionar los costes mecánicos de la publicación de los libros que resulten seleccionados a través de dicho procedimiento y, en su caso, los de los CD-ROM complementarios de aquellos. Se considera costo mecánico el costo total de la publicación, excluidos los gastos correspondientes a los derechos de autor, conformación temática, redacción, traducción, adaptación y corrección del contenido.

*2. artikulua.–* Onuradunak.

1.– Agindu honetan arautútako laguntzen onuradun argitaletxeak, unibertsitateak eta horien menpeko edo horietara atxikita dauden ikastetxeak eta unibertsitate-egiturak izan daitezke; orobat erakunde pribatuak, baldin eta, irabazi-asmorik gabe, euskarazko liburuak argitaratzen badituzte unibertsitateko edo goragoko mailako irakaskuntzarako.

2.– Aurreko paragrafoan adierazitako erakundeek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Dagokion erregistroan eratuta eta izena emanda egotea.

b) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan -liburuen argitalpena epigrafepean- alta emanda egotea.

c) Izaera bereko diru-laguntzen edo laguntzen esparruan hasitako edozein itzulketa- edo zigor-prozeduratan sartuta ez egotea.

d) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dauzkatela egiaztatzea.

*3. artikulua.–* Edizio-proiektuak eta diruz lagundutako liburuak.

1.– Argitalpen-proiektuak sortutako, itzulitako edo egokitutako zientzia-lanak izan beharko dute eta bertako edukiak lotura estua eduki beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateetako edo goi-mailako irakaskuntzako bestelako ikastetxeetako ikasketa-planak osatzen dituzten irakasgaiekin.

2.– Diruz lagundutako obren argitalpenak gutxienez bostehun alekoa izan behar du.

3.– Diru-laguntza emateko, lehenbiziko argitalpenei emango zaie lehentasuna.

4.– Argitaratzeko diru-laguntza jasoko duten liburuek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren hizkuntza-onarpena eskuratu beharko dute, agindu honetako 11. artikuluan ezartzen den prozedurari jarraituz. Horrek ez du esan nahi Agindu honetako 12. artikuluan xedatutakoa beteko ez denik.

5.– Diru-laguntza ordainduko bada, aldez aurretik, hizkuntza-egokitasunaren ziurtagiria eman beharko dio liburu horri Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak, edo, hala balegokio, 12. artikuluan aipatutakoaren arabera, euskararen arloko errektoreordeek.

6.– Diru-laguntza jaso duten liburuetan, diru-laguntza horren aipamena egin beharko da, eta aurreko azalean, atzeko azalean edo baimenen orrialdean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren logotipoa inprimatu beharko da, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasuneko eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuan (EHAAren 205. zenbakia, urriaren 26koa) deskribatzen den logotipoa, alegia. Liburuaren osagarri CD-ROMa ere argitaratzen bada, logotipoa CD-ROMaren azalean ere agertu beharko da.

*Artículo 2.–* Beneficiarios.

1.– Podrán ser beneficiarios de las ayudas reguladas en la presente Orden las empresas editoriales, las universidades, centros y estructuras universitarias dependientes o adscritos a aquellas así como las entidades privadas sin ánimo de lucro que publiquen libros en euskera destinados a la enseñanza universitaria y/o superior.

2.– Las entidades a que se refiere el párrafo anterior deberán cumplir los requisitos siguientes:

a) Estar constituidas e inscritas en el registro que corresponda.

b) Estar dadas de alta en el Impuesto de Actividades Económicas, epígrafe edición de libros.

c) No hallarse incursas en procedimiento alguno de reintegro o sancionador iniciado en el marco de subvenciones o ayudas de la misma naturaleza.

d) Acreditar el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

*Artículo 3.–* Proyectos de edición y libros subvencionados.

1.– Los proyectos de edición deberán serlo de obras científicas de creación, traducción o adaptación y su contenido deberá estar estrechamente relacionado con las materias que conforman los planes de estudios de las enseñanzas de las Universidades u de otros Centros de enseñanza superior de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– La edición de las obras subvencionadas deberá tener una tirada mínima de quinientos ejemplares.

3.– Se subvencionarán, preferentemente, las primeras ediciones.

4.– Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 12 de la presente Orden, los libros para cuya edición se otorgue una subvención deberán obtener, conforme al procedimiento establecido en el artículo 11 siguiente, la aceptación lingüística por parte del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

5.– Será requisito previo, para el pago de la subvención, la emisión del Certificado de Idoneidad Lingüística de la obra expedido por el Viceconsejero de Universidades e Investigación o, en su caso y de conformidad con lo establecido en el artículo 12, por los Vicerrectores del área del euskera.

6.– En los libros subvencionados se deberá hacer mención de la subvención otorgada e imprimir, en la portada, contraportada o página de licencias, el logotipo del Departamento de Educación, Universidades e Investigación que se describe en el Decreto 318/1999, de 31 de agosto, por el que se regula el Manual de Identidad Corporativa del Gobierno Vasco (BOPV número 205, de 26 de octubre). En caso de publicarse el libro con CD-ROM complementario, el logotipo figurará también en la cubierta de éste.

7.– Logotipo hau, dela koloretakoa dela zuri-beltzekoa, eredu honen araberakoa izango da:

*4. artikulua.*– Liburuak argitaratzeko epea.

1.– Diru-laguntzak eskatzen dituztenek gehienez ere bi urteko epea edukiko dute liburuak argitaratzeko, agindu honetako 8. artikuluan eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaitzen denetik kontatzen hasita.

2.– Baldin eta onuradunak, salbuespenezko eta behar bezala frogatutako arrazoiengatik, ezin badu liburua epe horretan argitaratu, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak aintzat har ditzake arrazoi horiek, eta hala balegokio eta bidezkoa bada, epea luzatzeko baimena ere eman dezake.

*5. artikulua-* Deialditik kanpo utzitako liburuak.

Agindu honetan arautzen den diru-laguntzarik ez da emango ondoko idatz-zati hauetan aipatzen diren liburuetarako:

a) Bibliofilo-lantzat jotako liburuak.

b) Herri erakundeen argitalpenak, agindu honetako 2.1. artikuluan sartzen direnak izan ezik.

c) Argitaletxeek edo bestelako erakundeek argitaratu eta horien bazkideek edo haiei atxikitakoek bakarrik eskuratu ahal izango dituzten lanak; orobat epeka ez bestela saltzeko argitaratutakoak.

d) Egileek berek argitaratutako liburuak.

e) Urtekariak, tesiak, tesinak eta aldizkariak edo bestelako aldizkako argitarapenak.

f) Liburu eleaniztunak, hiztegiak izan ezik.

*6. artikulua.*– Eskaerak egin eta aurkeztea.

1.– Interesatuek agindu honen I. eranskinean — eskabidearena— ezarritako ereduan bete beharko dute eskabidea, eta, ahal dela, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Erregistro Orokorrean (Donostia-San Sebastián kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz) aurkeztuko dute; bestela, posta ziurtatuz bidali ahal izango dute, edota Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 38. artikuluan aurreikusitako beste edozein prozeduraren bidez.

2.– Argitalpeneko proiektu bakoitzeko eskabide bana egingo da, agindu honetako 7.4. artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe.

3.– Eskabide-orriak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Unibertsitate Zuzendaritzan eskatu ahal izango dira, helbide honetan: Donostia kalea, 1 zk.a, Lakua 2. eraikina, 2. solairua, 01007 PK, Gasteiz. Posta elektronikoaren bidez ere eskatu ahal izango dira, huiscatd@ej-gv.es helbidean, edo Interneteko www1.hezkuntza.ej-gv.net/indice_e.htm helbideko «Bekak, laguntzak eta diru-laguntzak» sailean erakusgai jarritako informaziotik eskuratu.

7.– Este logotipo, ya sea en su versión color o en blanco y negro, se ajustará al siguiente modelo:

*Artículo 4.*– Plazo de publicación de los libros.

1.– Los solicitantes de las ayudas deberán tener prevista la publicación de los libros dentro del plazo no superior a los dos años, contados desde la fecha en que expire el plazo de presentación de solicitudes establecido en el artículo 8 de la presente Orden

2.– El Viceconsejero de Universidades e Investigación podrá apreciar las razones que, excepcionalmente y debidamente justificadas, impidan al beneficiario la edición de la obra dentro del plazo a que se refiere el párrafo anterior, y, en su caso, autorizará, si procede, la prórroga del mismo.

*Artículo 5.*– Libros excluidos.

No son objeto de las ayudas reguladas por la presente Orden los libros incluidos en alguno de los apartados siguientes:

a) Los libros considerados de bibliófilo.

b) Las publicaciones de entes u organismos públicos, a excepción de los comprendidos en el artículo 2.1 de la presente Orden.

c) Las obras que editadas por empresas editoriales u otras entidades, sólo sean asequibles a los respectivos socios o adheridos y las editadas exclusivamente para la venta a plazos.

d) Los libros publicados por sus propios autores.

e) Los anuarios, tesis, tesinas y revistas o publicaciones periódicas.

f) Los libros plurilingües, excepto los diccionarios.

*Artículo 6.*– Formalización y presentación de las solicitudes.

1.– Las solicitudes se formalizarán según el modelo normalizado que se publica como Anexo I, de solicitud, a la presente Orden y se presentarán, preferentemente, en el Registro General del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, calle Donostia-San Sebastián 1, C.P. 01010 Vitoria-Gasteiz, o se remitirán por correo certificado o por cualquier otro procedimiento previsto en el artículo 38 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– Para cada proyecto de edición se presentará una solicitud, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 7.4 de la presente Orden.

3.– Los formularios de solicitud se podrán solicitar en el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, Dirección de Universidades, Calle Donostia-San Sebastián, n.º 1 edificio Lakua 2, 2.ª planta, C.P. 01007 Vitoria-Gasteiz, por correo electrónico a la dirección huiscatd@ej-gv.es, o coger en la información de esta convocatoria expuesta en «Becas, ayudas y subvenciones» de la dirección de Internet www1.hezkuntza.ej-gv.net/indice_c.htm

7. *artikulua*.– Eskariarekin batera aurkeztu behar diren agiriak.

1.– Erakunde eskabide-egileari dagokion derrigorrezko dokumentazioa:

a) Identifikazio Fiskaleko Txartela.

b) Legezko ordezkariaren NAN.

c) Legezko ordezkaritza egiaztatzeko agiria.

d) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan -liburuen argitalpena epigrafepean- alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.

e) Zerga-betebeharrak beteta izatea ziurtatzen duen dokumentazioa, Ogasun eta Finantza Sailak 1991ko urriaren 7an emandako Aginduari jarraituz (91.10.15eko EHAA).

f) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duen agiria.

g) Argitalpen-fondoaren katalogoa, hala egokituz gero.

2.– Argitalpen-proiektuari dagokion derrigorrezko dokumentazioa:

a) Argitalpen-proiektuari buruzko memoria, 25 orrialdekoa gehienez ere.

b) Egilearen curriculuma edo, hala egokituz gero, aipamen biografikoa.

c) Eskabidea obra bat itzultzeko baldin bada, itzuli beharreko obraren ale bat.

3.– Baldin eta eskatzen diren agiri horietakoren bat dagoeneko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren esku badago, interesatuek halaxe jakinarazi dezakete beren eskabidean; eta hori egiten dutelarik, zein egunetan eta zein organo edo bulegotan aurkeztu zituzten adierazi beharko dute, hartara Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 35. artikuluaren f) idatz-zatiak ezarritakoa aplikatu ahal izan dakien.

4.– Erakunde eskatzaileak proiektu bat baino gehiago aurkezten duenean, aurreko 1. idatz-zatian zehaztutako dokumentazioa bat bakarra izan daiteke proiektu guztietarako.

8. *artikulua*.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasi eta 2003ko irailaren 15ean amaituko da, biak barne.

9. *artikulua*.– Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea.

Unibertsitate Zuzendaritzak hutsune edo okerren bat atzematen badu aurkeztutako eskabidean, interesatuari eskatuko dio zuzen dezala hutsune hori edo aurkez dezala nahitaezko dokumentazioa hamar eguneko epearen barruan; orobat, ohar hau egingo dio, hori egin

*Artículo* 7.– Documentación que debe acompañar a la solicitud.

1.– Documentación preceptiva referente a la entidad solicitante:

a) Tarjeta de Identificación Fiscal.

b) DNI del representante legal.

c) Documento acreditativo de la representación legal.

d) Documento acreditativo de estar en alta en el impuesto de actividades económicas, epígrafe edición de libros.

e) Documentación acreditativa del cumplimiento de las obligaciones tributarias, de conformidad con lo dispuesto en la Orden del Departamento de Hacienda y Finanzas de 7 de octubre de 1991 (BOPV de 15.10.91).

f) Certificación de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.

g) Catálogo del fondo editorial, en su caso.

2.– Documentación preceptiva referente al proyecto de edición:

a) Memoria no superior a 25 páginas relativa al proyecto de edición.

b) Currículo del autor o, en su caso, reseña biográfica del mismo.

c) Un ejemplar de la obra a traducir, cuando la solicitud sea para la traducción de una obra.

3.– Cuando alguno de los documentos exigidos estuviera en poder del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, los interesados podrán hacer constar esta circunstancia en su solicitud, señalando la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados a fin de acogerse a lo establecido en el apartado f) del artículo 35 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.– Cuando la entidad solicitante presente más de un proyecto de edición, la documentación requerida y especificada en el apartado 1 anterior podrá ser única para todos ellos.

*Artículo 8*.– Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo para la presentación de solicitudes será desde el día siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco hasta el día 15 de septiembre de 2003, inclusive.

*Artículo 9*.– Subsanación de defectos en la solicitud presentada.

Si la Dirección de Universidades advirtiera en la solicitud presentada la existencia de algún defecto o inexactitud se requerirá al interesado para que en un plazo de diez días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo

ezean, eskabideaz etsi egin duela joko dela; horretarako, baina, ebazpen bat eman beharko du aldez aurretik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen legearen 42. artikuluak ezarritakoari jarraituz.

*10. artikulua.–* Laguntzak kudeatzeko organoa.

Unibertsitate Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak kudeatzea. Unibertsitate Zuzendaritza Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren aholku teknikoaz baliatu ahal izango da.

*11. artikulua.–* Hizkuntzaren egokitasuna eta ikuskapena.

1.– Diru-laguntza jasotzen duten liburu guztiek hizkuntzaren egokitasunaren baldintza bete beharko dute, hau da, Euskaltzaindiak ezarritako jarraibide eta arauetara egokitu beharko da hizkuntza.

2.– Egokia den ziurtatzeko, eta 12. artikuluan ezarritakoa kendu gabe, onuradunek, liburua egindakoan eta inprimatu aurretik, lanaren behin betiko probaren kopia oso bat bidali beharko dute Unibertsitate Zuzendaritzara, hizkuntzaren egokitasuna ikuskatzeko.

3.– Hizkuntza ikuskatzeko, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak izendatutako erakundeak edo adituek txosten bat egingo dute.

4.– Salbuespen gisa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera bidali aurretik , argitalpen-proiektuak, horretarako aukera izan delako, era honetako txostenik jaso baldin badu, interesdunak edo, hala egokituz gero, diru-laguntzaren onuradunak txosten hori aurkeztu ahal izango du, eskaerarekin batera, edo hizkuntza-gainbegiraketaren unean bestela, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak baloratu dezan.

5.– Ikuskapen-txostena izan daiteke:

a) Aldeko txostena, erabilitako euskara bere osotasunean onartzen duena.– Kasu honetan, diruz lagundutako proiektuaren hizkuntza-testuari onespena emango zaio eta 3.4. idatz-zatian adierazten den ziurtagiria emango da.

b) Aldeko txostena, baldin eta proposatzen diren hizkuntza-zuzenketak egiten badira.– Proba bere osoan onartzen ez bada, baina proposatutako hizkuntza-zuzenketak egin ondoren ontzat jotzen bada, zuzenketa horiek interesatuei jakinaraziko zaizkie, lana argitaratu aurretik testuan sar ditzaten.

c) Kontrako txostena.– Gramatikako edo lexikoko akatsak daudelako edo Euskaltzaindiak hizkuntzaren batasunari buruz emandako arauak betetzen ez direlako bidalitako probako testua onartzen ez bada eta hobekuntzak edo aldaketak egin behar direla irizten ba-

hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución dictada de conformidad con lo establecido en el artículo 42 de la Ley de Régimen Jurídico y de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

*Artículo 10.–* Órgano de gestión de las ayudas.

Corresponderán a la Dirección de Universidades las tareas de gestión de las subvenciones reguladas en la presente Orden. La Dirección de Universidades podrá contar con el asesoramiento técnico del Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

*Artículo 11.–* Idoneidad idiomática y supervisión lingüística.

1.– Todos los libros objeto de subvención deberán cumplir el requisito de idoneidad idiomática que se concreta en la adecuación lingüística de la obra a las directrices y normas establecidas por la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.

2.– A tal fin, y sin perjuicio de lo establecido en el artículo 12, una vez finalizada la elaboración del libro y previamente a su impresión, las entidades beneficiarias deberán enviar una copia completa de la prueba definitiva de la obra a la Dirección de Universidades para su supervisión lingüística.

3.– La supervisión será realizada, mediante la emisión del informe correspondiente, por el organismo o expertos que, al efecto, designe el Viceconsejero de Universidades e Investigación.

4.– Excepcionalmente, cuando por razones de oportunidad el proyecto de edición se hubiese sometido a algún informe de esta naturaleza antes de su remisión a la Dirección de Universidades, el interesado o, en su caso, el beneficiario de la subvención, podrá acompañar el mismo a su solicitud o presentar éste en el momento de llegar al trámite de supervisión lingüística, al efecto de su valoración por el Viceconsejero de Universidades e Investigación.

5.– El informe de supervisión podrá ser:

a) Informe favorable aceptando en su integridad el euskera utilizado.– En este supuesto se dará la conformidad al texto lingüístico del proyecto subvencionado y se expedirá el certificado a que se refiere el artículo 3.4.

b) Informe favorable si se efectúan las correcciones lingüísticas que se proponen.– En los casos en que esta prueba no se acepte en su integridad pero se considere apta una vez que se efectúen las correcciones lingüísticas propuestas, se comunicarán éstas a los interesados para su incorporación al texto de la obra antes de ser editada.

c) Informe desfavorable.– En los casos en que, por errores de tipo léxico, gramatical y/o no observarse las normas emitidas por Euskalzaindia sobre la unificación de la lengua, el texto de la prueba remitida no se acepte y se considere necesario efectuar ciertas mejoras o mo-

da, Unibertsitate Zuzendaritzak argitaletxeei egin beharreko aldaketen berri emango die. Epe jakin bat emango zaio argitaletxeari aldaketok egiteko eta berriro gainbegiraketarako beste proba bat aurkezteko.

Probak bigarren aldeko txostena lortzen duenean, aurreko idatz-zatietan ezarritakoaren arabera ekingo zaio, eta proba aurkezten ez bada edo aldeko txostena lortzen ez badu, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak laguntza ezeztatzea erabaki dezake, agindu honetako 24. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

*12. artikulua.–* Euskararen arloko errektoreordeek emandako hizkuntza-egokitasunaren ziurtagiriak.

Unibertsitateen eta unibertsitateen menpeko edo unibertsitateetara atxikita dauden ikastetxe eta egituren argitalpen-proiektuak, diru-laguntza jasotzen badute, salbuetsita egongo dira agindu honetako 3,4 eta 11. artikuluetan ezarritako ikuskapen-araubide horretatik. Kasu horietan, ziurtatu beharko da liburuen hizkuntza bat datorrela Euskaltzaindiak ezarritako jarraibide eta arauekin; horretarako, kasuan kasuko Euskararen arloko errektoreordeek behar diren ziurtagiriak emango dituzte.

*13. artikulua.–* Aurkeztutako proiektuen aldez aurreko ebaluazioa.

1.– Deialdi honetan aurkeztutako argitalpen-proiektuak kasuan kasuko zientzia-arloetako aditu ezagunei bidaltzea erabaki dezake Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak, iritzi kritikoa eman eta lan horiek unibertsitateko edo goragoko mailako irakaskuntzarako interesgarriak diren edo ez esan dezaten. Horrek, ordea, ez die ezertan eragingo hurrengo artikuluan aipatzen den batzordearen gain utzitako eginkizunei.

2.– Era berean, aurkeztutako argitalpen-proiektu bakoitzaren txosten teknikoa egingo du Unibertsitate Zuzendaritzak, onartutako kostu mekanikoen gainekoa. Txosten hori Kalifikazio Batzordeari bidaliko zaio; batzordeak, txostena hartu ondoren, zehaztu egingo du zein osagaik jaso dezakeen proiektuaren kostu mekanikoen %100eko laguntza, beti ere, laguntza hori, 16.2 artikuluaren arabera ebaluatuta.

*14. artikulua.–* Kalifikazio Batzordea.

1.– Aurkeztutako argitalpen-proiektuak baloratu eta aukeratzeko, batzorde bat eratuko da, honela osatuko dena:

Batzordeburua: Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea.

Batzordekideak:

Unibertsitate-zuzendaria

Zientzia Politikarako zuzendaria.

Idazkari, botorik gabe: Ikastegi Zerbitzuko eta Zuzendaritzarentzako Laguntza Teknikoko arduraduna.

dificaciones, la Dirección de Universidades comunicará a la editorial los cambios a realizar. La editorial dispondrá de un plazo determinado para introducir las modificaciones y presentar, nuevamente, una prueba posterior para su supervisión.

Cuando esta prueba obtenga informe favorable, se procederá según lo establecido en los párrafos anteriores y en el caso de no presentarse o no obtener informe favorable, la Viceconsejería de Universidades e Investigación, podrá disponer la revocación de la ayuda en los términos establecidos en el artículo 24 de la presente Orden.

*Artículo 12.–* Certificados de idoneidad lingüística expedidos por los Vicerrectores del área del Euskera.

Se exceptúan del régimen de supervisión establecido en los artículos 3.4 y 11 de la presente Orden los proyectos de edición subvencionados cuyos beneficiarios sean las Universidades, centros y estructuras universitarias dependientes o adscritos a aquellas. En estos casos la adecuación idiomática de los libros a las directrices y normas establecidas por la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia será acreditada mediante las certificaciones que, al efecto, expidan los Vicerrectores del área del euskera.

*Artículo 13.–* Evaluación previa de los proyectos presentados.

1.– Sin perjuicio de las funciones encomendadas a la Comisión a que se refiere el artículo siguiente, el Viceconsejero de Universidades e Investigación considerará la conveniencia de remitir los proyectos de edición que concurran a esta convocatoria a conocidos especialistas de las áreas científicas correspondientes, a fin de que se emita un juicio crítico acerca del interés de la obra para la enseñanza universitaria y/o superior.

2.– Se efectuará asimismo por la Dirección de Universidades un informe técnico individualizado de los costes mecánicos admitidos para cada proyecto de edición presentado. Este informe se elevará a la Comisión Calificadora y detallará los componentes que pudieran corresponder a una ayuda del cien por cien de los costes mecánicos del proyecto, evaluados según se establece en el artículo 16.2 de la presente Orden.

*Artículo 14.–* Comisión Calificadora.

1.– Para la evaluación y selección de los proyectos de edición presentados se constituirá una Comisión cuya composición será la siguiente:

Presidente: El Viceconsejero de Universidades e Investigación.

Vocales:

La Directora de Universidades

El Director de Política Científica.

Secretaria, sin voto, la Responsable del Servicio de Centros y Apoyo Técnico a la Dirección.

2.– Batzordearen jarduera-arauak azaroaren 26ko 30/1992 Legearen — Herri-Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea- II. izenburuko II. kapituluan daude jasota; arau horiek izaera orokorra dute.

*15. artikulua.–* Proiektuak baloratzea eta aukeratzea.

1.– Proiektuak baloratu eta aukeratzeko, ondoko irizpideak hartuko dira kontuan:

a) Unibertsitateko edo goragoko mailako irakaskuntzarako obrak duen interesa. Gehienez ere 25 puntu emango dira.

b) Unibertsitateko titulu ofizialen edo Euskal Autonomia Erkidegoan ematen diren goi-mailako irakaskuntzako bestelako tituluen katalogoan sartuta dauden tituluak eskuratzeko ikasketa-planak osatzen dituzten irakasgaien edukira egokitzea. Gehienez ere 25 puntu emango dira.

c) Lanaren egilearen curriculum zientifiko-profesionalaren balorazioa. Gehienez ere 15 puntu emango dira.

2.– Ebaluatzerakoan puntuazio nahikoa lortu duten -33 puntu alegia- argitalpen proiektuei laguntza ematea proposatuko du batzordeak; deialdiari ezarritako kreditua banatzeko laguntzari portzentaje bakar bat aplikatuko zaio. Portzentaje hori proiektuen argitalpen kostuaren —16.2. artikuluan adierazten den moduan kalkulatuko da— eta 1.2. artikuluan —eta hala behar izanez gero, lehenengo xedapen gehigarrian- ezarritako aurrekontu-kredituaren araberakoa izango da.

*16. artikulua.–* Laguntzen zenbatekoa.

1.– Laguntzen zenbatekoa liburuak argitaratzeko kostu mekaniko guztien %100erainokoa izan daiteke, bai eta, hala balegokio, liburuen CD-ROM osagarriak argitaratzeko kostuena ere, beti ere, agindu honetako 15.2. artikuluan aplikazioaren arabera hala aterako balitz.

2.– Lanaren argitalpenaren kostu mekanikoak zenbatesteko, bai eta, hala balegokio, CD-ROM osagarriarenak ere, batzordeak hau hartuko du kontuan: liburuaren argitalpenak izango dituen ezaugarri teknikoak, hain zuzen ere, eskatzaileak eskabidean adierazitakoak, eta argitalpen-merkatuan batezbesteko kostutzat jotzen dena, agindu honetako II. Eranskinean — Kostuen gainekoan— zehaztutakoaren arabera.

*17. artikulua.–* Ebazpena.

1.– Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta beranduenez ere bost hilabete igaro baino lehen, deialdiko diru-laguntzen gaineko ebazpena emango du, aldez aurretik Kalifikazio Batzordearen proposamena aztertuta. Ebazpen hori banan-banan jakinaraziko zaie eskatzaileei.

2.– Las normas de funcionamiento de esta Comisión serán las establecidas con carácter general en el capítulo II del Título II de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 15.–* Evaluación y selección de los proyectos.

1.– Para la evaluación y selección de los proyectos se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

a) Interés de la obra para la enseñanza universitaria y/o superior. Se baremará con un máximo de 25 puntos.

